


# Baleike

Zumaiako herri aldizkaria. 25. zenb. 1996ko ekaina. 100 pzta.

25  
zenbakia!!



Triatletak  
prest!!

Urtena!!



**Ze berri?**

Osakidetzak ez du larrialdi zerbitzua aldatu nahi

**Elkarrizketa**

Saharako kanpamenduen gaur egungo egoera

**Erreportaia**

Zumaiako Gida argitaratuko da laster

Zumaiako Fototekak  
utzitako argazkia




**OCTUBREREN  
BOTADURA**

Argazkian ageri dena Octubre izeneko untzia dezue, Arrizabalaga eta Olatzen astillerotan egindakoa. Kontatzen dutenez itsasoan bidaia batzuk egin ondoren arazoak izan omen zituen. Muturrean duen zuhaitz horrek untzia erabat bukatuta dagoela adierazten du.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**

Argitaratzailea



Zumaiako Udalak diruz  
lagunduriko aldizkaria



**BALEIKE  
HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea  
tfnoa: 86 10 56  
faxes: 861742

argitaratzailea  
**ZUMAIKO  
GAZTE  
BATZORDEA**

Ian taldea  
Iratxe Aizpurua  
Esther Martinez  
Eneko Dorronsoro  
Xabier Azkue  
Igor Uranga  
Josu Waliño  
Gorka Zabaleta  
Juan Luis Romatet  
Kolaboratzaileak  
GEG, Natur taldea,  
Miriam Romatet, Aintzane eta  
konpainia, Kepa Aizpurua,  
Imanol Manterola, Jon  
Manzisor, Dani Carballo, Josu  
Egaña eta Arantxa Eizagirre,  
Ainhoa Iturbe, Mattin, Luis Mari  
Aizpurua, Igone Korta, Nerea  
Unanue, Argi Aizpurua, e.a.


publizitatea  
861056 tlf.  
inprimategia  
Gertu Koop. E.  
(Zubillaga - Oñati)  
tirada: 1.000 ale  
Lege gordailua: SS-405/94

BALEIKEk ez du bere  
gain hartzen aldizkarian  
adierazitako  
esanen eta iritzien  
erantzukizunik.

Ze berri?  
**Haurrek  
Zumaia  
garbitu zuten**  
.... 10. or.



Artea  
**Eskultura  
irabazleen  
kritika**  
....7. or.



Festak  
**Badatoz San  
Pedroak!**  
...26 or.

**Selektibitateko baratzan**



**Eneko  
Dorronsoro**

Ikasle, badator uda, hau da gozada!  
Ziur guztiok banan-banan kontatuta dauzkazuela geratzen zaizkizuen klase egunak. Nik bai behintzat. Baina oraindik azken txanpa, paladarik gogorrenak falta dira, azterketak alegia. Hainbat, gainera aurten, beste oparitxo bat egingo digute, lehengo gutxi bazen edo. Ditxosozko selektibitatea.

Azken ikasturte honetan ere, aurrekoetan bezala, batzuen baratzak besteenak baino oparagoak izango ziren, gurdia kalabazaz kargatuagoa ekarriko zuten, alegia. Izango ziren handik eta hemendik dezima bat lortu nahian jardungo zutenak ere, "Eske nik putxuzulotako ingeniariatza egin nahi dut eta zortzia eskatzen dute", "Ah, ba nik pelukera; zenbat behar da hor sartzeko?".

Gainera ikasi beharrekoa nahikoa ez, eta nerbioak pilatzen zaizkigu gure kaskezurrean. Baina animatu. Patroiaren esanei jarraitu, eta ea estropa irabazten dugun.

Ah, eta uzta txarra izan dadila!



**PREMIAZKO  
TELEFONOAK:**

Kultur Etxea .....	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

# Montse, zein urrun dagoen Cuba!

Baleikeko artikulu batean aipatu naute. Lurralde honetan ematen diren hainbat gertaera bortitzen izendapenen artean nire izena aurkitu dut. Montse Aranak idatzi du.

Nire aurreko artikulu bat erantzutera dator berea. Nik udal kontuak aipatzen nituen, Alkatearen jarrera batzuk salatzen nituen. Biolentziaz ari da EAJko zinegotzia.

Nire salaketa eta biolentzia espresio batzuk nahastea --udal aurrekontuak GALEkin nahastea litzatekeen bezalaxe-- ez zait batere serioa iruditu. Montseren erantzuna eragin duen artikuluan, zera nioen nik, Ricardo Peñaren alkatetzaren ezaugarrien artean, gardentasunak, egiak eta udala demokratizatzeak ez dutela leku handirik. Esandakoaren adibide gisa, Gobernu Batzordeko bilerekin gertatutakoa aipatzen nuen. Alegia, frankismo ondorengo alkatetza guztien jarrera hautsiz, debekatu egin diola oposizioari Gobernu Batzordeko bileretan presente egotea.

## Alderdi guztiek dute komisiotan parte hartzeko eskubidea

Udala txiki geratu eta kanpora atera da argudio bila. Biolentzia dela eta, ez omen dut egin dudana salaketa egiteko legitimizaziorik. EAJko zinegotziaren argudioak ez dira hor bukatzen, badira gaiari --udalaren funtzionamenduari-- lotutakoak ere. Udala eta alkatearen izaera demokratikoa garbi gera dadin, funtzionamendua agertzen du: «Astero udaleko sei batzorde biltzen dira eta azken honetan salbu (Gobernu Batzordea), gainontzekoetan parte

## Migel Aperribai (HBko zinegotzia)



hartzen du HBk. Hau gutxi balitz, bilera guzti hauetan aktak jaso eta banatu ere egiten dira».

Komisiotan partehartzeaz, jakin beharko luke Montsek Legearen arabera alderdi guztiek dutela komisiotan parte hartzeko eskubidea, eta ezinezkoa dela alkateak edo beste inork alderdi bat baztertzea. Non dago ba jarrera irekia, aktak banatzen? Hala bada, zer dela eta ez zaizkigu debekatuta daukagun (Gobernu Batzordeko) aktak banatzen? \* Bistakoa da, gardentasuna helburu bada, egon ez garen bileren aktak egon garen bileretakoak baino garrantzi handiagoa dutela oposizio paperean gaudenontzat.

Ez zaio Montseri «logikoa» iruditzen oposizioa Gobernu Batzordeko bileretan egotea. Argibide gisa, HBko Mahai Nazionalan beste alderdietako partaideak sartzearekin, edota Castroren Cuban oposiziokoak egotearekin parekatzen du nire nahia. Adibide «xelebre» bezain esanguratsuak benetan. Mahai Nazionalarekin

parekatze horrek, Montsek alderdia eta udala, batzokia eta Gobernu Batzordea, ez dituela bereizten pentsarazten dit. Ez dut Euzkadi Buru Batzarrean egotea eskatzen, ezta antzekorik ere. Hautatua izan naizen erakundearen erabakietan partaide izan nahi dut, ez beste inon. Beste adibidea berriz, Cubari buruzkoa, asimilatzeko nago oraindik. Zein urrun dagoen Cuba! Ez zegoen Atlantikoa zeharkatu beharrik adibide bila. Hemen alboan, Kantauri itsasertzean, ezker nahiz eskubi aldera, badira adibideak. Getarian, EAJ gobernuan egonik, orain arte Zumaian bezala, udalean diren alderdi guztiak hartzen dute parte Gobernu Batzordean. Deban, berriz, partehartzeaz gain, udal gobernu bera ere osatu berri dute EAK eta HBk. Zer ote diote Cubari buruz?

Oposizioa Gobernu Batzordeko bileretatik kanpo uzteko, Legea aplikatu dela ere esaten du. Argitu beharko litzateke hartutako erabakia legezkoa bada ere, ez dela Legea izan oposizioa kanpoan utzi duena. Oraingo egoera bezain legezkoa zen orain artekoa. Plenora joaten diren herritarrei alkateak hitza ematea bezain legala da alkateak hitz egiten ez uztea. Biak legalak. Zabalagoa, irekiagoa, demokratikagoa?

Nire aldetik, gaiari lotuta, oposizioa dena delakoa izanda ere, Gobernu Batzordeko bileretan egoteko aukera defendatzen jarraituko dut.

\* Migel Aperribaik, idatzia eman ondoren ohartarazi digu, 96ari dagozkion Gobernu Batzordeko aktak orain bidali dizkiola Udalak.

**Oharra:** Idatzi hau erredakzioan laburtuta dago.

## Huntza, o.k.



DISEINUA  
MANTENUA  
ERABERRITZEA  
ZUHAITZ, ZUHAIKKA  
ETA FRUITONDOEN  
KIMAKETA

Iorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

## kukutz

PUBLIZITATEA-SERIGRAFIA



\*KAMISETAK  
\*KAPELAK  
\*TXISKEROAK  
\*TXANDALAK  
\*PAPELEZKO  
POLTSAK

Baltasa Etxabe 7 Tfnoa: 860569



Foto Amertze

Erribera kalea 6  
Tel / faxa: 861707


**NORENA OTE  
INTOLERANTZIA?**

JARRAI gazte erakundeak, EGik Zumaiako herriari zuzenduriko idatziari buruz zenbait azalpen eta argipen nahi ta nahiezkoa ikusi du.

EGiko "gazte abertzale" hauek, itxura denez, jaietan erabat erasotuak sentitu dira eta, noski, eraso honen errua edo ardura norbaiti egozten hasi behar eta JARRAI gazte erakundea eta bere ingurukoak salatu ditu. Nola ausartzen zarete zuek jasandako "erasoak" JARRAIri atxekitzen? Eta, nola esan dezakezue "JARRAI edo bere inguruko zenbait elementu inkontrolatuk" eragin dizkizuetela erasoak? Zuek ondo dakizue, guk bezalaxe, ez daukazuela inolako frogarik guk zerbait egin dizuegula baieztatzeko. Izan ere, nola edukiko duzue bada frogarik, guk ez baitugu zuen aurkako ekintzarik burutu!!!

Nola ausartu zaitezke esaten, azken egunean txosna erasotu zutenean "txosnetan lanean ari zirenen eta inguruetan zebilen zenbaiten arduragabetasuna" agerian geratu zela? Nor zarete zuek besteoi kontuak eskatzeko orain artean herriari egindako gazte bilera, mahainguru, txosnetako mobidetara... hurbiltzen ere ausartu ez zaretean? Nola ausartu zaitezke JARRAIrekin sartzen herriko arazoan aurrean zuen axolagabetasuna agerian uzten besterik ez dakizutenok?

Biktimarena egiten ari zarete, zuek zapaltzera joango bagina bezala, errealitatean alderantziz gertatzen den bitartean. Zuek zarete estatu espainiarren jokaera txalotzen duzuenak eta ondorioz, beraien babes guztia daukazuenak alde guztietatik. Leku guztietan (eta alde guztietan) saiatzten zarete JARRAI eta ezker abertzalea deusezten (gezur, trikimailu, atxiloketa, epaiketa... ustelen bidez), zuen "Euskal Herri" berri, zapaltzaile, espainol, faxista eta hipokrita



sortzeko oztopo garelako. Guk ez diogulako inolako espainolei eskuan min egin eta beraiek esandako ezer ez dugulako onartu (PNV eta PPK, ordea, ez al dute oraintxe "ezkontza" bat egin?).

Besterik gabe, gure borrokan tinko jarraituko dugu garaipena lortu arte!!!

**Zumaiako JARRAI**

.....  
**MONTSE ARANA  
ZINEGOTZIARI**

Montse Arana zinegotziaren gutuna erantzunik gabe ezin dut utzi, nahita edo nahi gabe maiatzeko Baleiken argitaratutako bi gutun nahasten dituelako, Migel Aperribaik bialdutakoa eta nirea. Ez dakit udaleko bi talde ezberdinen arteko istiluak zein diren, baina zerbait esan nahi nuke Montse Aranak ironiaz botatako hitzen inguruan.

Lehendabizi Montse: nik ez nuen aurreko gutuna idatzi etimologia hutsa egiteko asmoarekin, nire asmoa hitzaren esanahia ahal den neurrian argitzea zen guztiok uler gaitezen, eta horretarako Larousse hiztegitik hartu nuen "demokrazia" hitzaren esanahia, ez historiako liburu potoloetatik. Ez dakit zuk, baina nik uste dut etxe askotan dagoen hiztegi entziklopedikoa dela.

Bestalde, badakigu zure alderdia Europako Alderdi popularraren barruan dagoela, baina ez nuen zure aldetik espero populismoa egitea, nola esan daiteke «herri honek, etimologia gehiegi jakin gabe, demokrazian bizitzea erabaki du, hau da, gehiengoaren gobernua onartzea», gehiengoaren gobernua

gehiengokrazia izango da eta ez demokrazia, bereiz ditzagun terminoak! Nire uste apalez, (eta nire hitz jariora ere oso murrizta da, ezagupen etimologikoak eta filologikoak bezalaxe), gaur egungo sistema mendebaldeko herri ia gehienetan «partido-kraziarena» da eta ez demokraziarena. Ados nago beldurrean, mehatxupear, e.a.ean bizitzea ez dela demokrazian bizitzea, baina kontutan izan dezagun historiak erakutsi diguna ere, hau da, gehiengoaren onarpenarekin iritsi zela Hitler boterera (topiko historikoa erabiliz) edo gehiengoaren onarpenarekin egin zirela historiako sarraski izugarriak (judutarren hilketak adibidez).

Honekin ez dut asmo izkururik azaldu nahi, gauzak argitzea baizik, badakit batzutan demokraziaren alde batzuek efikaziaren alde sakrifikatu behar direla, hala ere, hori gertatzen denean onartzeko balorea izan behar da. Honi buruz eztabaidatu beharrean, saia gaitezen sistema nola hobetu daitekeen pentsatzen, bila ditzagun 8.000 biztanleko herria zuzentzeko bide demokratikoak, demokrazia egon, ez dagoelako, jarrera eta ekintza demokratikoekin egiten da.

Horretarako prest naukazu nahi duzun momentuan, ez erantzun «nik ez dakit ezer, nik dakidana da...», zuk badakizu, zure kultura maila ez delako edozermoduzkoa, ezagutzen gara horrenbesterako behintzat.

Azkenik, demokrazia hitza guztiok berdin ulertzen ez dugunez, hausnarketarako liburu bat gomendatu nahi nizuke (ez bildurtu ez da tratatu filosofikoa, panfleto modukoa baizik) "El cansancio de Occidente" du izenburua eta R. Argüñol eta E. Trias egileak (ez dira HBkoak); nire ustez Espainiako kongresurako aurkezten den edozeinek irakurri beharko lukeen liburuxka da. Geratuko gara liburuaren inguruko komentarioak egiteko.

**Ismael Manterola Ispizua**

**BELARDENDA  
SIWA**  
Esther Blanco  
OSTEOPATA-MASAJISTA  
Basadi 5-C behea  
Tlf: 143404 - 860012

HABAGITEGIKO. 15-1. TEL: 86 21 16

**Habana**  
auto  
Mekanika eta  
karrozeria  
Axular ibiltokia, 14 86 00 70  
Zumaiá

ABDULAH

# Bizitza

Idazteagatik, idatzi egingo det, ezertaz, denaz, berdin dio! azkenfiñean gauza danak ikutzen dira beren azkenmugetan: itxaso-lurra, jaiotza-heriotza, hutsa-betea... eta bada zerbait gauza orotan dagoena, edo hobe! gauza denak bertan diraute,.... zer ote?... bizitza alegia!

Ze gauza bitxia! Ezin degu inoiz ere neurtu, ez pixatu, ezingo degu urrezko kutxetan gorde, eta are gutxiago erosi. Denen eskura dago, hortxen, gu noiz konturatuko zain. Iheskor suertatzen zaigu askotan, ezezagun gehietan, hain hurbil eta hain eskura izanik, eta agian horretxegatik ikustezin bihurtzen zaigu. Baleike!

Kanpora eta urrunera beitzearen ondorioz bere hurbiltasunaren laztan goxoez zorabiatu egiten baigaituzte. Bera, gu geu izanik, arrotz bilakatzen zaigu. Agian gure egunen joan-etorrien zurrunbilloan murgildurik askotan egiten degu topo berarekin, maño batzutan lanpetuegiak egoteagatik ez diogu kasorik egiten; beste batzutan berriz, gure sentipen eta pentsakizunei loturik gabiltzala, ez degu askatasunik eukiko berekin hitzeiteko; presak, eginbeharrak, aurreritziak, beldurrak, nekeak, etsipenak etb. luze batek berekin egotea galeraziko digute.

Maño eozein kalebazter, bidetxur edo lagunartetan, berekin topo egiten badegu zoriona dasta leikeu. Beren zama galtzen dute eguneroko buruhauste eta gorabeherak eta unea bere osotasunean ulertzeko aukera degu: inungo taosik gabe, argi! eguzkipean bezain dizdiratsu! naturaren eta kosmosaren legeekin bat egiñik, behaurretan urtuz.... ibaiak itxasoakin bat egiten duen eran.

Zorixarrez zeñen urri gertatzen zaizkigun une hoiek! urak eskuartetik bezela aldegiten digute berekin poza eta pakia eramanez.

Zer egin leikeu hau gerta ez dagigun? zer egin monotoniaren trenera igo eta bertatik jeixteko geltokia aurkitzen ez badegu? nola egin gure pentsamenduen jabe eta nola sentipenak gainditu ez gaitzan?.....

Galde dagoela norberak bere barruari, arretaz eta pazientziaz entzun ezkerorantz denak bertan daudela konturatuko baigean. Izan gaitezen ausart eta kementsu! litekeen altxorrik ederrena guztion esku baidago. Lortuko dugulakoan...

Aurrez zorionak!!

II.  
urteurrena



XABIER  
AZKUE

Gure Baleikek une honetan bi urtetxo bete ditu geran bezela izanik horrek badauka nahiko meritua aurrerantzean ere nahi degu sendo ta gogor handitu oso gustora jarriko gera ta pozez ezin kabitu Aita Mariko eserlekuak betetzerik bagenitu.

Nahiz eta batzuk ez zuten uste izango ginanikan gai oinez ibiltzen ikasi degu ta hitz egiten ere bai hasierako errekastoa orain bihurtu da ibai bere barnean murgildu eta bainatu zaitezte lasai gure herria frexkatutzea besterik ez baitegu nahi



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.  
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412

ROSI  
GARBIKETAK

- Etxeak eta dendak
- Enpresa eta auzo lanak
- Europa garbiketa eta tintaketa

Basadi 3-A  
Tlf. 861670



Antonio Etxabe  
Gizonezkoen erropak



Zunbillo 4  
Tlf: 861407



# Eskultura lehiaketak


Zumaiako Arte Taldea

Maiatzaren 7 eta 8an erabaki ziren Paoleko eta Narrondo ibai ertzeko eskultura lehiaketak. Epaimahai ezberdinek eskultura oso ezberdinak aukeratu dituzte toki baterako eta besterako. Paol muturrerako aukeratu denak «estazio bat, aulki bi, mila istorio asma ditzake tristurak...» izenburua du eta **Jabier Elorriaga** Galdakaoko eskulturgilearena da. Hau Arte Ederren fakultateko irakaslea da eta egindako proiektuan azaltzen denez hiru elementuz osatutako eskultura proposatzen du.

Hiru geldione kokatzen ditu barra luzean zehar, paseatzerako orduan hausnarketa egiteko aukera emanez. Lehendabizikoa barra zaharraren beheko partean kokatuko da, marmol zuriko aulki nodukoa ertzean jarrita egongo da, soka eta «salbaidasak» gordetzeko erabiltzen zen armairuaren parean; zuloaren barruan, berriz, argitutako argazki bat jartzea proposatzen du, eta argazkiak itsasoaren lerro okerra irudikatuko du, askotan itsasuntzietan ikusten den moduan.

Hurrengo urratsa, mutur zaharra eta berriaren arteko loturan egongo da. Hemen, amarraderoen antza duen marmolezko pieza jarriko du, hala ere forma organikoagoak izango ditu.

Azkenik, mutur-muturrean, bigarren solairuan dagoen plazatxoan,



Haundiak badirudite ere, cm batzutako tamaina besterik ez dute maketako piezek.

beste bi aulki jartzeko asmoa du, marmolezko bloke bat izango dute alboan eta honen gainean, Urolako estazio zahar baten etxetxo.


Orokorrean, proiektua sentsibilitate poetiko handia zuelako aukeratu zen, lekuak berez duen gogortasuna eta gehiegizko presentzia kontuan izanda. Beraz, epaimahaiak pieza txikien aldeko apustua egin zuen, aukeraketan ibilbide edo itinerarioaren ideiak ere garrantzia izan zuelarik. Azken honen arrazoia imajinatzea ez da zaila, muturraren estutasuna eta luzera konpontzeko arazoak baitziren.

Beste lehiaketa irabazi duen eskultura Beobideren omenez eraikiko da. Ez da erraza omenaldiaren gaia lantzea gaur egungo eskulturentzat, hala ere, **Jose Mari Herrera** eskulturgile azpeitiarrak ondo konpondu ditu aurrean zituen arazoak (leku estua hemen ere,

Beobideri egin beharreko aipamena, e.a.a). Proposamenak hiru material erabiltzen ditu: altzairua, marmola eta kristala. Azken honetan Beobideren argazkia inprimatuko da, serigrafiaren bidez.

Ezin ditugu ahaztu lehiaketako beste sariak, tartean zumaiar bat baitago, bai lehiaketa batean, bai bestean. **Arantxa Santamaria** da hain zuzen akzesit bana jaso dituen artista. Bere proposamenak ondo egokituta zeuden toki ezberdinetara eta lurrian (zoruan) bilatu dio arazoari konponbidea. Beste akzesitak **Ricardo Catania** eskultore ezagunarentzat izan da Paoleko lehiaketan eta **Fernando Garciantzat** Narrondo ibaiaren kasuan.

Bukatzeko Arte Taldearen aldetik balorazio positiboa egin behar dugu bi lehiaketen aurrean, Paolekoak izan duen arrakastagatik (166 proiektu aurkeztu ziren, gure aurrikuspenak gaudituz), Udalarekin izan dugun elkarlanagatik, aukeratu diren eskulturengatik eta zumaiar artisten proiektuek epaimahaikideen arreta jaso dutelako. Gure ustez, Zumaiar maila haundiko bi eskultura publiko izango ditugu. ■



## OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057  
20750 ZUMAIA



inportaturiko erropa  
eta artisautza

Basadi 3 Zumaiar

## Lanbide hastapenerako zentruan izena emateko epea zabalik

Ikasketak utzi eta lanbide bat ikasi nahi duten 16-20 urte bitarteko neska mutilei zuzenduriko Lanbide Hastapenerako Zentruan 96/97 ikasturterako izena emateko epea zabaldu dute. Aukerak honakoak dira: Eraikuntza alorrean bi daude: **Igeltseritza** eta **Margoketa**. Ostalaritza alorrean berriz beste hainbeste: **Sukaldaritzakoa** bata, eta **Taberna eta jantoki zerbitzua** bestea.

Hauek denetan izango diren ikastaroeak bi zati izango dituzte, oinarritzakoa bata, ofizioaren oinarritzko ikaskuntza, gizarte eta lan heziketarekin osatua izango dena, eta sakontzekoa bestea, hau da, ofizioaren espezializazioa eta lanbide



Praktikak egiteko aukerak ere izango dira.

bat aurkitzeko teknikak. Ondoren praktikak egiteko aukera ere izango dute ikasleek eskualdeko lantokietan.

Izena emateko epea maiatzetik ekainera bitartean bada ere, matrikulazio epea irailaren 2tik 27ra izango da Udaletxeko Gizarte Zerbitzuko Departamentuan. ■



**EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA!** aldarrikatzeko Amaia Plazan akanpaturik egon ziren herriko 40 gazte inguru, Jarrai taldeak konbokatuta, joan den hilaren 17 eta 18an. Akanpadak iraun zuen bitartean baraurik egon ziren, baina ez zen animorik falta izan, kantaldi eta malabarrez lagundurik. Amaieran, manifestazio bat egin zuten herrian zehar.

### laburrak

#### Objezio fiskala

Gure diruaren aitorpena egin behar dugun honetan, ez da ahaztu behar ordaintzen dugunaren ehuneko haundia gastu militarretara bideratuko dela. Horregatik, talde antimilitaristak, kopuru hori ez ordaintzea proposatzen du, dirua ekimen sozial edo humanitarioetara erabiliz. Zuen errenta aitorpenetan eragozpen edo objezio fiskala egiteko prest bazaudete, Forondatik pasa zaitezke ostiraletan 7etatik 8 t'erdietara, informazio gehiago eskatzera edo zuzenean objezioaren paperak egitera.

#### Elkarriren oharra

Hilaren 22an Elkarrik Bilbon antolaturiko manifestaziora joateko autobusa izango da Zumaian. Helduentzat 1.000 pta. balioko du bidaiak, eta gazteek 700 pta ordaindu beharko dituzte. Izena emateko 148065 (Joseba) telefonora deitu. Honetaz gain, ekainaren 12an, arratsaldeko 7'30etan HITZALDI bat izango da Oxforren honako gaiarekin: "Euskal gatazkaren egoera eta manifestazioa". Hizlaria oraindik ere zehazteko dago, baina karteletan berehala iragarriko da.



### ERTZ INFORMATIKA

Mendaro Martñela 3

TEL: 14-33-95

Zure INFORMATIKAKo Denda

- ORDENAGAILU P.C
- INPRIMAGAILU
- CD-ROM
- KRISTALEZKO PANTAILAK
- DISKETTEK



Okindegia

eta gosariak

Kale nagusia, 2



## Obrak Estazioko sarreran




Narrondo aldekoak bukatu bezain laster, beste lan hauek hasi dira. Errekastoak bideratu eta kanal baten bidez Urolaratzea da hauen helburua eta gutxienez uztaila bitartean bidea orain bezala egongo da. Rotonda bat egiteko adina zabalerarik ez badago ere, diputazioari bidea zabaltzea proposatuko zaio, Estaziora doazen kamioi eta autobusek sarrera eta irteera hobeak izan ditzaten.


Hala ere, lan hauek iragartzen dituen kartelak ere merezi du aipamenik. Herri honetako euskaldunok ez al dugu eskubiderik edo zer?



## Panteoi berriak



Azken asteotan hilerrian ere lanean gogor dihardute, lehengo panteoi zahar batzuk kendu ondoren berriak sartzten ari baitira, argazkian ageri den gruaren laguntzaz.



## Kantina bat Gernika parkean

Dagoeneko hasiak dira Gernika parkean kokatuko den kantina eraikitzeke lanak. Erdi aldean jarriko da kantina, parkeko bidexka baten ondoan. Eraikuntza bera erabat egurrez forratutakoa izango da eta terrazatxo bat izango du inguruan, kanpoan mahaiak jartzeko aukera izan dadin. Davila izango da lan hauek burutuko dituen eta uztailaren hasiera alderako bukatuta izatea espero dute.

Auto - Konponketak

**ELKAR**



PEUGEOT

Estazioko kalea  
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

**DISKO-BAR**



Alai Auzotegia 2.



**ZUMAI A**



**AUTO -ESKOLA**



- \* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- \* Praktika eta azterketak Azpeitian
- \* GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAIA



**AIZPURUA**

L  
I  
B  
R  
O  
S

OPARIK

Aita-Mari Auzotegia, 17  
Telefonoa: 861569  
20750 ZUMAIA

# Haurrak herria garbituz

Zumaia Garbiaren III. edizioa burutu zen joan den hilaren 21ean

**L**ehenengo eta leseigarren maila bitarteko haurrak izan ziren joan den hilaren 21ean Zumaia garbitu zutenak, leku batetik eta bestetik pilatuta zegoen zakarra poltsetan bilduz. Aurten-goarekin hirugarren aldia da Zumaian ekintza hau antolatzen dutena, eta bertan haurrak herria garbitzen ibiltzen dira, taldeka.



**Herriko txoko guztiak garbitzen saiatu ziren.**

Haurrak herria garbi mantentzea denon ardura dela konturaztea helburu duen ekintza honetarako, kamixetak eta pegatinak ere atera dituzte, eta horretarako aurreko

urtean antolatutako marrazki lehiaketako lanik onena hartzen dute.

Ea orain, bai helduok baita haurrak ere, urteko beste egun guztietan garbiago jokatzeko dugun!



## BERTSO ESKOLAKO TALDEA FINALEAN

Herriko Bertso Eskolako gaztetxoek talde batek Gipuzkoako Eskolarteko XVI. Txapelketako finalera sailkatzea lortu zuen. Zarautzen jokatu zen finala, eta lan txukuna egin arren ezin izan zuten txapela eskuratu. Gutxienez, badatoz kimu berriak!!

Oihan Lizaso, Ander Urbietta, Gorka Arrizabalaga eta Gorka Iribar lanean.

## laburrak

### Baleike Euskal Pentsaren Egunean



Hil honen 9an, Donostiako Sagues auzoan ospatuko den Euskal Pentsaren Egunean txoko bat izango du Baleikek ere. Izan ere bertan egingo den erakusketara gonbidatu gaituzte, beste hainbat herri aldirikarekin batera jarriko diren standetan gure "produktua" erakustera. Beste ekitaldi ugari ere badaudenez (begiratu 31 or.) merezi du bertara bixitatxo bat egitea. Han izango gaituzue!

### UEUrako dirulaguntzak

Urtero egin ohi duen moduan Zumaia Udalak dirulaguntzak emango ditu Baiona eta Iruñean egingo den Udako Euskal Unibertsitatara joan nahi duenarentzat.


Ikastaroerik edo dirulaguntzerik buruzko argibide gehiago udaletxeko Euskara Zerbitzuan emango dizute (Tel.: 860250)

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnua: 861160  
ZUMAIA



# NIKOL-ENEA

taberna

Amaiako plaza Tfnua. 861440

# Larrialdietan larri

**Z**umaian bertan larrialdietako sendagilea egon dadin atzerapauso garrantzitsua eman da, Osakidetzako arduradunek zumaia-iarrek egindako eskaerari uko egin eta bide honi atea itxi baitizkio. Osakidetzakoen esanetan orain dagoen zerbitzuak ondo funtzionatzen du eta ez dago aldatu beharrik.

Hau ikusita, Larrialdietako sendagilea herrian bertan egotea eskatzen duen batzordeak bilera ireki baterako deialdia egin zuen, eta 50 lagun baino gehiago elkartu ziren ekainaren lehen egindako bileran. Orain arte emandako pausoak azaldu

ondoren, batzordeak honako erabakia hartu zuen:

Udalari ez ohizko pleno bat eskatzea, eta bertan:

a) Plenoa buru dela eta Osakidetzaren erabakiekiko herriak duen ezadostasuna azaltzeko, zumaia-iar guztiei manifestazio batera dei egitea.

b) Azaldutako helburua lortu arte kontzentrazio edo giza kateak bultzatzea.

c) Erabaki hauek eta honetara garamatzaten arrazoiak kaleratzeko, eperik laburrenean prentsaurreko bat ematea.



*Zumaiarren artean kezka handia sortu duen kontua dugu larrialdi zerbitzu-arena.*

## laburrak

### UDAL ERROLDA

Jakingo duzue, egun hauetan Udal Errollda eta Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistika egiten ari dira gure herrian. Jasoko diren datuak oso garrantzitsuak dira Zumaia osatzen duten pertsonak nolakoak diren jakiteko.

Dagoeneko etxe gehienetatik pasa dira errollda agenteak, eta zure etxean topatu ez bazaituzte papertxo bat utziko zizuten. Paper hori jaso baduzu, pasa zaitez udaletxetik ekainaren 15a baino lehen. momentutxo bat nahikoa duzu eta.

Ordutegia. goizez (9-14) eta arratsaldez (15'30-17'30); larunbatetan goizez bakarrik (9-13).

### GLOTODIDAKTIKA IKASTAROA

Euskara irakasteko ikastaroa egiteko asmoa baduzu, oraindik ere epea zabalik dagoela gogorarazi nahi dizuegu. Argibide gehiago AEK Euskaltegian (Tel. 860248).

**EGOKI**  
ERLOJU DENDA

---

E. Gurrutzaga plaza, 6  
ZUMAIA

**ZUMER**  
TABERNA

Erribera kalea, 2  
Telefonoa: 861125  
ZUMAIA

**Itzurun**  
ATEAK

Itzurun zuhaitzbidea 2  
Tel: 861565  
143446  
ZUMAIA

**IZETA**  
orrastegia

Urumea 6  
Tlf: 862083

**IRIBAR**  
OKINDEGIA - KAFETEGIA  
Tlf: 143361

Gosarietan prezio bereziak

**Paki**  
Belardenda

**OSASUN NATURALA**

Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

Maiatzean Zumaiatik Tindoufeko kanpamenduetara egindako hirugarren bidaia izan genuen. Udaleko hiru ordezkari izan ziren bertan, Euskal Herriko beste 100 lagunekin batera. Zumaiarekin senidetuta dagoen Zug-Daira herriko alkate eta zinegotzietan egon ziren eta

## Fatimetu Abdelahi

bertan bizi duten egoeraren berri zuzenajaso zuten. Emakumeak dira kanpamendu hauen martxa eramaten dutenak, eta horregatik Arantxa Urkidik hango giza eskubideen arduradunari egindako elkarrizketa zuenganatu nahi izan dugu.

# Saharako herri minaren ahotsa

ZENBAT JENDE GERATZEN DA LURRALDE OKUPATUETAN? NOLA DAUDE?

Ziur ez badakigu ere, milioi bat pertsona inguru daudela uste dugu. Kazetaririk ez dago, han gertatzen den informazio errealki ez dago, errealtatea ezkutatu egiten digute, inork ez daki han zer gertatzen den. Oraindik txaboletan bizi dira, egoera larrian. Askok eta askok lan eskubiderik ez dute. 1991n 200 pertsona utzi zituzten aske eta desnutrizio sintomekin.

HERIOTZA MASIBOEN BERRIRIK BA AL DUZUE?

Badakigu gutxienez 800 familia oso hil dituela dagoeneko Marruekoeko ejerzitoak. Bestalde Amnesty Internationalek egindako zerrendak daude, publikoki behin ere azaldu ez badira ere. Hala ere Marruekoek ez du ezertxo ere onartu. **NBE-ONUko** INDARRAK JOATEN ARI DIREN HONETAN, NOLA IKUSTEN DUZUE ERREFUXIATUEN KANPAMENDUKO EGOERA?

Pertsonalki lotsagarria iruditzen zait lau urte hauetan gertatzen ari dena. Egindako bake planak ez digu ezertarako balio, inork ez du inplikatu nahi. Momentu hauetan *impasse* batean gaude, ez gaude gerran eta ez dago bakebiderako inongo



Fatimetu erizain lanetan aritzen da.

esperantzarik. Bitartean Marrueko bere soldaduak prestatzen ari da, baita bere trintxerak indartzen ere. Guk berriz exilioan jarraitzen dugu, bizi baldintza gogor hauetan.

ZER IRTENBIDE IKUSTEN DIOZU?

Gaur egungo egoeran ezin dugu jarraitu. Gerra ala bakea, baina ez dugu gezurrezko egoera honetan jarraituko. Ez dugu gerra maite, galtzaile nagusiak geu baikara: semeak frentean ditugu gizonekin batera, umezurtz eta alargunak gehituz doaz, baina beste erremediorik ez badago prest gaude

gerrara joateko, azken 20 urteak ez baitira alferrikan pasa. Momentu hauetan alderdi guztietako eta pertsona guztien laguntza behar dugu, maila internazionalen, Europa eta mundu guztiko laguntza, herri sahararraren borroka, borroka justua delako.

**"Gizarte antolakuntzaren pisurik handiena emakumeok daramagu"**

LAGUNTZA SOZIALA ETA HUMANITARIOA BADUZUE, BAINA POLITIKOA?

Laguntza soziala eta humanitaria behar-beharrezkoak ditugu egunero bizi ahal izateko, baina guk laguntza politikoa behar dugu, politikoki konprometitzea. Gure herriak bizi duen gatazkari behin-betiko irtenbidea emateko, irtenbide politikoa delako konponbide bakarra.

HERRI ISLAMIKOETAKO EMAKUMEEKIKO ZERK BEREIZTEN ZAITUZTETE?

Gizartean integratu beharra izan dugu, egoera berezi honek maila askotan paper aktiboa hartzera "behartu" gaitu. Gizarte antolaketaren pisu gehiena geuk daramagu: hezkuntza arloa, osasuna, material eta

**MATE**  
**ILEPAINDEGIA**

Berezitasuna ileen sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



**Loitz**

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuadernazioak
- Plastifikazioak
- Fax Publikoak
- Aldizkari eta Opariak

Erribera Kalea, 4  
Telf.-Fax: 14 34 22  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



**DORNUTEGI**

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzatega, 10 beheko  
Telefonoz: 862051

**SUKALDEKO  
ALTZARIAK**

20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)

janariaren banaketa... Herri guztietan komiteak ditugu, familia kopuruaren arabera banaketa egokiak egiteko.

**EMAKUMEEK PARTE HARTZEN AL DUZUE KARGU PUBLIKOETAN?**

Bai, bai. Zinegotzi gehienak eta alkate batzuk emakumezkoak dira, eta parlamentaria bat edo beste ere badago. Defentsa ministerioan, berriz, denak gizonezkoak dira.

**"Mundu guztiaren laguntza behar dugu, herri sahararraren borroka justua delako"**

**FRENTEAN BA AL DAGO EMAKUMERIK?**

Oraindik ez, baina azken kongresuan sartzeko eskaera egin zuten. Egoera berri batean sar daitezke, benetako premia baldin badago; hala ere horretara ez iristea espero dut.

**HAUR ASKO IZATEN AL DITUZUE?**

Bai, batezbeste 5 edo 6, ez erlijioagatik; herri txikia gara eta ez desagertzeko beharrezkoa dugu populaketa gehitzea.

**HAURREN HERIOTZA TASA HANDIA AL DA?**

Hasieran bai, baina orain asko jeitsi da. Erditzeak ospitalean izaten ditugu, eta badaude ONGn proiektuak herri guztietan erditze gelak jartzeko.

**KANPOKO DELEGAZIORIK EZ DAGOENEAN ZER EGITEN DUZUE?**

Ni erizain lanetan aritzen naiz, normalean bertako ospitalean eta behar handia dagoenean. Bestalde higiene eta prebentzio kanpainak egiten ditugu, kontzientiazio kanpainak... Beti ere badago zeregina.

**OSASUN ARLOA NOLA DAGO?**

Oinarrizko atentzioa hobetuz doa, probintzia bakoitzak bere ospitalea du eta herrietan pare bat erizain daude

arazo txikiak bideratzeko. Kanpotik mediku komisioak etortzen direnean ebakuntzak egin eta kontsultak pasatzen dituzte.

**ETA HEZKUNTZA ARLOA?**

Haurrak 6 urterekin hasten dira eskolan, bitartean gurasoak lanean badaude haurtzaindegiak baditugu. 11 urte bitartean herrian egoten dira, hemendik aurrera eskola internatuetera pasatzen dira. Jarraitu nahi duenak kanpora joaten da goi mailako ikasketak burutzera: Kuba, Frantzia, Donostia, Espainia...

**ZENBAT URTEREkin SARTZEN DIRA FRENTEAN?**

Normalean 18-19 urterekin edo karrera bukatzen dutenean. Soldaduska ez da derrigorrezkoa, baina ia guztiek egiten dute.

**EMAKUMEAk ANTOLATUTA AL ZAUDETE ZUEN ARTEAN?**

Bai, bai, etorkizunerako prestatzen ari gara. Independentzia lortzen dugunean ez dugu etxe barruan sartuta egoterik nahi, gure lekua egin

nahi dugu. Emakumez gain, gazteak eta langileak ere antolatuta daude beraien aldetik.

**"Gure herria ez desagertzeko beharrezkoa da populaketa gehitzea"**

**INDEPENDENTZIA LORTZEN DUZUENEAN LAGUNTZARIK BEHARKO AL DUZUE NAZIO ERAIKUNTZAN?**

Gure lurraldea oso aberatsa da, baliabide ekonomikoak izango genituzke: arrantza, baratzak, mineralak... Autosufiziente edo buruaskiak izango gara.

**NOLA IKUSTEN DUZUE ZUEN KANPAMENDUETARA HORRENBESTE JENDE ETORTZEA ?**

Laguntza moral handia da guretzat; mundu guztitik etortzen dira, interes pertsonalik gabe, nola bizi garen ikustera. Benetan pozgarria iruditzen zaigu. ■



*Zein ote da haur polit hauen etorkizuna?*

**JOSEBA OSA  
- ITZULPENAK -**

**EUSKARA-GAZTELERA-  
KATALANA-INGELES-  
FRANTSESA**

Tel / fax: 148065

**ekin**  
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
INSTALAZIO MUSIKALAK  
AKUMULADOREAK  
ALARMAK  
ANTENAK  
PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97  
TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1<sup>a</sup> - Telf. 14 34 74  
20750 ZUMAI A (Gipuzkoa)




**Azkue Autoak**

Estazioko kalea, 19      Telefonoa: 861433  
20750 ZUMAIA      Fax: 861067

# GIDA bat baino zerbait gehiago

*Hilabete batzuetako lanaren ondoren San Pedroen inguruan ateratzea espero da Zumaiari buruzko "gida turistikoa". Komatxoan artean jarri dugu batetik ez delako turistentzat bakarrik zuzendutako lana, eta bestetik gida arruntetan normalean azaltzen ez diren datu eta informazio asko bilduko dituelako. Aspaldian ez zen horrelako lanik egin Zumaian eta politena da erabat zumaiarrez osatutako taldea aritu dela lan honetan.*



*Lau hizkuntza ezberdinetan argitaratutako da eta guztira 14.000 ale aterako dira.*

Azken urteotan, turismo bulegoa ireki eta gure herrira etortzen ziren kanpotarrentzat material askorik ez zegoela ohartu zen Zumaiaiko Udala; liburuxka pare bat bazeuden, (jadanik zahartuta), Gozaz aldizkaria, foileto batzuk eta askoz gehiago ez. Honen aurrean, eta inguruko herrietan ateratzen joan diren gidak ikusita, gurean ere zerbait egin beharra zegoela

erabaki eta Javier Carballo jarri zuen proiektuaren koordinatzaile, Miriam Romatetekin batera.

Azaro aldera egin ziren lehen bilerak eta gidaren ardatz nagusiak finkatu ziren. Lantalde bat osatu zen eta benetan aipagarria da denak zumaiarrak zirela; talde horretan elkartu ziren diseinatzaileak, kazetariak, marrazkilariak, argazkilariak,

biologoak, historialariak, itzultzaileak eta abar. Bakoiitzak bere arloan lan egin du, eta garrantzitsutzat jo da denak bertakoak izatea, herria hobeto ezagutzeaz gain lana gogo gehiagoz egiten delako eta hauek koordinatzea errazagoa ere badelako.

## Gida konpletoa

Gida honetan gai interesgarri guztiak bildu nahi izan dira, Zumaia eskeintzen duen guztia erakutsi asmoz. Gida hau lantzen aritu direnen ustez oso konpletoa da, eduki aldetik sakontasun pixka bat bilatu nahi izan da, erabilgarritasun handiagoa izan dezan. Beste herri batzuetan oso gida politak atera dituzte, Zarauzkoa adibidez, baina gaiak oso axaletik aztertu dira eta «mami» gutxi aurki daiteke bertan; «ikusteko» gidak bakarrik direla esan daiteke.

Lan honetan gai guztiak jorrazteko honako atalak bereizi dira:



*Sei hilabete baino gehiagoan aritu dira lantaldekoak gida hau prestatzen.*

**Maiaur**  
Jolastokia

*Jesuskoa*  
*Faletxea*

*Txupa 86 17-39 • C/ikia Zumaia*

**LEIZE**

Juan Belmonte 6  
ZUMAIA

Tnoa: 860415


Historia, Artea, Kultura, Zumaia eta ingurua, Komunikazioak, Arrantza, merkataritza eta industria, Klima, Ingurune naturala, Jaiak, Kirolak, Gastronomía, Aisi aukerak, Ibilbideak, Zerbitzuak eta Planoak.

Orain artean Zumaian ez zegoen herriaren alderdi guztiak biltzen zituen argitalpenik; historia kontuak jakiteko liburu batzuetara jo behar zen, naturakoak ikusteko beste batera, eta abar. Gai hauek guztiak behar bezala aztertzeak lan handia eman die, ez baita erraza herri baten ezaugarri guztiak liburu batean egoki eta txukun biltzea. Hala ere, bibliografia zabala erabili dute esku artean eta denak ere gustora geratu dira egindako lanarekin, eta hori, egia esan, ez da gutxi.

**Argazki eta irudi asko izango dira gidaren 130 orrialdetan zehar**

Liburuak guztira 125 orrialde inguru izango ditu. Hasiera batean laburragoa egiteko asmoa zegoen, baina gero gauza berri batzuk sartzea merezi zuela ikusi da eta horregatik luzatu da zertxobait.

Didaktikoa izateko helburua ere badu lan honek, astuntasunera jo gabe, gaiak sakon samar landu baitira. Horrela, gida irakurtzen duenak Zumaia neurri batean ondo ezagutuko duela esan dezakegu. Zumaia-errek edukitzeko ere oso liburuxka interesgarria da, eta ez apalean gordetzeko bakarrik, baita irakurtzeko



eta gure herriari buruzko kontu berriak ikasteko ere.

Praktikoa da gida hau, oso erabilgarria. Koaderno itxura du, eta horregatik orrialde edo atal batetik bestera pasatzea oso erraza da.

Argazki asko izango ditu gidak, 120tik gora, eta irudiak ere ugari: landare eta animalienak, atalak bereizteko irudiak... Argazki eta irudiak bakarrik ikusita ere herriaren ideia orokorra antzeman daiteke. Bestalde lau plano ere tartekatu dira, herria inguruan kokatu eta gunerik interesgarrienak non dauden zehazteko.

**Orain artean Zumaian ez zegoen herriaren kontu guztiak biltzen zituen argitalpenik**

San Pedroen bueltan aurkezteko asmoa dago, eta berehalá jarriko da salgai, salneurri merke samarrean,

noski. Euskaraz 3.000 ale aterako dira, gaztelaniaz 7.000, eta ingelesez eta frantsesez bakoitzetik 2.000 ale.

Zumaia-ko Udala da lan hau argitaratuko duena. Zuzendari eta koordinatzaile lanetan Javier Carballo eta Miriam Romatet aritu dira. Diseinuaz eta maketazioaz arduratu direnak Argi Aizpurua, Igone Korta eta Nerea Unanue izan dira. Testuak idatzi ditzuztenak honakoak dira: Eguzki Agirrezabalaga, Rafael Del Pilar, Arritxu Iribar, Inazio Manterola, Ismael Manterola Ispizua, Javier Odriozola, Joseba Ossa eta Gonzalo Torre.

Argazkiak ateratzeaz Javier Carballo arduratu da; irudi eta planoak, berriz, Daniel Carballok egin ditu. Azkenik itzulpen lanetan aritu diren herritarrak lehen aipatutako Eguzki eta Joseba izan dira, Imanol Garatez gain.

Guztiek ere gida honek harrera ona izatea espero dute. ■

**SOLOZABAL AUTOESKOLA**

Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416

**INPERNUPE ELKARTEA**

Erribera kalea Telefonoa: 861523


**ZUMAIA**



© CARBALLO & BASKETBALL TEAM. 1996

■ THESE THREE MEASUREMENTS (113, 183, 226) CHARACTERISE THE SPACE OCCUPIED BY A PERSON 6 FT (1'80m) TALL. THE FIGURE 113 GIVES US THE GOLDEN SECTION 70, YIELDING THE FIRST SERIES, KNOWN AS THE RED SERIES, 4-6-10-16-27-43-70-113-183-296, etc.....

# 23





TUM TUM TUM TUM TUM TUM TUM TUM TUM STUKTUM ! ....



# AIR

SPORTWEAR

# SUSPENDERS



... STCHAKS! ...

... STUM! ...

■ NIK HORI EZ DIAT SINESTEN...  
EZIN DIK EGIA IZAN.  
ESAN ZIATEN HAUNDIA ZEUKALA  
BAINA HORI... HORI JAUZI  
HAUNDIEGIA DEK. KAMARAKIN  
TRUKUA EINDA ZEOKELA ESANGO NIKI

# Ba al dakigu benetan zer den sexualitatea?

**Tartetxo honetan zenbait ideia isladatu nahi ditut, behintzat ideia bezala adieraztea erreflexiorako bidea zabalduz.**

Hasteko sexualitatea ez da ugalketa. Nahiz eta hau argi dugula pentsatu, askotan benetan asumitua dugun erlazio bat da. Baina hau gizarte saltzaile eta kontsumista honetan saltzen diguten ideia faltsua besterik ez da.

Sexualitatea, hasteko, gizakiaren potentzial bat da, ez da sexista, sexologia dugu sexista ez den zientzia bakarra. Sexualitatea gizakiok GOZATSU (plazenteroak) izateko dugun ahalmena da. Eta honi zerbait gehiago gehituz, bere azalpen gorena SAMURTASUNA (ternura) da (eta ez orgasmoa). Eta gozatsu gara buruko iletik hasita hankeko azken atzazkalerarte. Bai, bai, samurtasuna esan dut.

Samurtasuna gizakiok bata bestearantzako garrantzitsuak izateko dugun ahalmena dela esan dezakegu, guretzako gu geu garrantzitsuak garelako.

Ba hau horrela izanik, sexualitatean ugalketa ez da usaitu ere egiten. Honen adibide argi eta mingarri bat bortxaketan ikusten dugu. Bortxatutako neska bat haurdun gera daiteke, baina sexualitateak ez du inolaz ere zerikusirik izan.

Bestalde, gizarteak erlazio sexuala penetrazioa dugunean izaten dugula saldu digu, eta gainera antisorgailuak baditugunez jadanik soluzionatuta ikusten dute sexualitatea ondo bizi nahiaren ezintasuna.

Zergatik ez digute irakusten gozatsuak izaten? Hau honela balitz ez litzateke existituko esteerotipo diren "neska politak" ezta boterean eta sumisioan oinarritutako erlazioak, ezta neurtzen den sexualitatea ere.

Denok gara gozatsuak eta berdintasunean bizitzeko hau konpartitzea besterik ez zaigu geratzen. Eta hau honela samurtasunaren bideetan sartzen gara.

Ez gaur gauden moduan, plazerra orgasmo kopuruaren arabera neurtuz. Hau kontzeptzio faltsu baten ondorioa da. Lehenik eta behin sexualitatea ezin da neurtu, funtsean bizi eta sentitu egiten da. Sexualitateaz hitz egitea ez da sexu-organo edo genitalez hitz egitea bakarrik, ni nola sentitzen naizen baizik (gizon-emakume).

Sexualitatean gehien funtzionatzen duena burua da (beldurrak, blokeoak, inhibizioak, imajinazioa, fantasiak...). Edozein jokabide sexuak gure jarreraren zati bat darama.

Ondorio gisa zera esango dut, gure sexualitatearen bizipena ez dagoela bakarrik itxura

biologikoaren menpe (garapena), gure jaiotzatik konfiguratzen joan den historia pertsonalaren (egitura psikologikoa) eta bizitza tokatu zaigun gizarte konkretu horren (aspektu sozio-kulturala) menpe baizik.

Beraz, pertsona bakoitzak modu desberdinean bizi du sexualitatea. Heziketa, sinesmen, izaeraren eta abarren arabera. Gure sexualitatearen historia ernaltzearekin hasi eta heriotzarekin bukatzen da.

Iritsi da aukera eder honen jabe izan eta sexualitateaz blai egiteko garaia. ■



**Ainhoa Iturbe**

**ERROTA**  
**ERROTA**  
OPIL - OKINDEGIA  
Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68  
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01  
ZUMAIA

**AXIER KIROLAK**  
Ortega y Gasset, 2  
ZUMAIA  
Telefona: 862206

**ARGIA**  
Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93  
ZUMAIA

# Hidroponia, lurrik gabeko baratza

Zumaiako Institutuan, ikasle batzuekin Baratzagintza eta Loragintza tailerra landu asmoz, proiektu bat lantzen hasi ziren iaz. Gaia praktikoki lantzea ezinbestekoa zenez negutegi bat jartzea oso interesgarria zela ikusi zuten. Baina ikastetxearen alboko saila negutegi tradizionalera egokitzeko zeuden zailtasunak ikusita, konponbidea **HIDROPONIA** teknikan topatu zuten, eta horrela oraindik ere negutegi hidroponikoa ageri da institutuko patioan.

Teknika nahiko ezezaguna da, Israel aldetik ekarria, eta ez du inolako zerikusirik bestelako teknikarekin. Teknika konplexua denez, Foru Aldundiko teknikariek eta GILBE baratza eta loragintza elkarteko kideekin jarri ziren harremanetan institutukoak, dokumentazioa eta informazioa bildu eta negutegia martxan jartzeko.

Berezitasunik aipagarriena lurrik gabe funtzionatzen duela da. Tubo luze baten forma duen eta plastikoz bilduta dagoen "sustrato" batzuetan sartzen dira landareak, lurretik altura batera. Sustrato hau perlitaz osatzen da batez ere, eta baita perlita-bermikulita nahasketaz. Perlita, jatorri bolkanikoa duen hondar silizea da eta labean 1.200<sup>o</sup>tara egon ondoren erabiltzen da baratzagintzarako.

Sustrato honetan sartuta daudenean, mangeratxo batzuen bidez "soluzio nutritibo" bat iristen zaio landare



Patioan bertan dago negutegi hidroponikoa.

bakoitzari, denei berdin. Soluzio honetan normalean lurrak eskeintzen dituen oxigenoa eta minerale guztiak daude, urarekin nahastuta. Landareek xurgatzen ez duten soluzioa beheko ontzi batzuetara joan eta dena biltzen da.

Horrela, institutuan bertan azelgak, letxuak, kalabazinak, tomateak, bainak, berenjenak eta krabelinak landatu zituzten, eta dagoneko ale ederrak jasoak dituzte.

Teknika honek abantaila izugarriak ditu: lurrik erabiltzen ez denez, ia ez da izurrite edo gaitzik sortzen; ez dago belar txarrak kentzen aritu beharrik, ez da lurra landu behar, landaketak azkar txandakatzen dira eta azkarrago etortzen dira, kalitate hobeko produktuak lortzen dira (itxura ederrekoak eta botikarik gabeak) eta ekoizpen gastuak txikiagoak dira.

Desabantailen artean instalakuntzaren gastu handia dago, goi mailako teknologia ezagutu beharra eta ezin dela nahi diren produktu guztiak landatu.

Hala ere, behin instalakuntza egin ondoren negutegi honek ez du mantenimendu lan handirik ematen, eta ikasleak dira, txandaka, horretaz arduratzen direnak, Hezkuntza Berezikoak batez ere. Hori bai, temperatura eta xurgatzen duten soluzio kopurua eta beste zenbait gauza neurtu eta kontrolatu behar izaten dira.

Hasiera batean, udan zehar negutegia mantentzeko asmoa dago, eta beharbada hurrengo ikasturtean institutuko ikasleak azokan ikusiko ditugu, negutegi honetako produktuak saltzen. ■



Ikasleek lantzen dute negutegia, irakasleen gidaritzapean.



**ILANO**  
LIBURUDENDA

Paperdenda  
Prentsa  
Aldizkariak  
Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Liburuak

**Baltasar Etxabe 7**  
Tlf: 14 31 91



**ZURICH**

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1  
Tel. Faxes. 860169

**Alberdi**  
GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6  
Tlf: 861155

# Psikomotrizitatea

Badira urte batzuk Udal Eskola Kontseilua martxan jarri zela. Kontseilu honetan herriko ikastetxeek, publiko nahiz pribatu, parte hartzen dute.

Historia labur honetan ekintza ezberdinak antolatu dira. Batzuk puntualak izan dira: igeriketa kanpaina, ipuin lehiaketa, mintegiak, emanaldiak... Baina hauetaz gain garrantzi haundiko gaia garatzen saiatu da kontseilu hau: nola egin aurre "eskola porrotari".

Duela sei urte Psikologo talde bat Zumaiako haurrekin lanean hasi zen. Hasieran diagnostikoak eta ondoren beharrak. Hauetariko batzuk Hezkuntza Sailak dituen baliabideak aprobe txatuz bideratu ziren. Beste batzuetan, berriz, erakunde publikoek eskeintzen ez zituztenez, pribatueta jo behar izan zen. Horrela, Marian Gojenola, Erlazio psikomotrizitateko hezitzailea ezagutu genuen. Lanean hasi zen gure herrian, eta Udalak lokalak eskeintzeaz gain, bidaiak eta guraso-irakasleekin izango zituen bileren kostua bere gain hartu zuen; gurasoek, berriz, beraien haurren tratamenduaren kostua.

Baina zer da **Psikomotrizitatea**? Seguraski inoiz entzun dugu hitz hori eta beharbada "gimnasia" edo antzeko zerbaitekin lotu izan dugu, baina zertxobait argitzeko orain dela gutxi Marianek berak "Hik hasi" aldizkarian idatzitako artikulutik aterako ditut zenbait ideia.

*Psikomotrizitate munduan bi joera daude: psikomotrizitate razionala eta erlazionala. Razionalaren helburua nagusia*



*Izugarritzko garrantzia du psikomotrizitateak haurren hezkuntzan*

*aprendizaia eta pedagogia mailakoa da; erlazionalarena berriz haurraren adierazpen global eta prebentiboan oinarritzen da.*

*Erlazio psikomotrizitate saioetan haurra bera da protagonista gorputz mugimenduaren bidez, bere interes eta beharrianak adieraziz subjektu bezala. Helduaren laguntzarekin bere dimentsio psikofisiko, emozional eta sozialak garatzen ditu. Honela, Erlazio psikomotrizitateko saioak hezkuntza praktika prebentibo eta konpentsatorioaren funtzioa betetzen dute bide batez, eta gaurko haurrak dituen beharrian psikoafektiboek erantzuten diete.*

*Erlazio psikomotrizitatearen metodoa jolas librean oinarriturik dagoenez, biziki azpimarratu nahi dut, jolas mota horrek heziketan leku eta denbora berezi bat izateak*

*duen garrantzia, jolas ordutik kanpora. Jolas libreak haurraren barneko eta kanpoko mundua adierazten du sinbolikoki eta horrela bere fantasia, beldurra, zailtasuna, baliabidea, sormena eta abar azaldu eta lantzeko bidea da.*

**Psikomotrizitatea "gimnasia" edo antzeko zerbaitekin lotu ohi dugu**

Bere lanarekin amaitu aurretik, bai hezkuntza munduan aritzen gareno bai, nola ez, gurasoei, gogoeta bat egiten digu Marianek: *Gizarteak izan duen eboluzioa ikusirik, gaur eguneko haurrak baliabide material ugari ditu eta alderdi didaktiko-pedagogikotik ere ongi horniturik dago; baina haur horrek askotan egiten digun eskaria bere azalaz barru alderakoa izaten da. Sarritan haurrak SOS bat bidaltzen ari balira bezala sumatzen ditut. Ulerkuntza eta sostengu beharra adierazten dute beren portaeraz, begiradaz, larruazalaz... Barrenean gaurko haurraren beharrian nagusiak, nahiz eta intelektualki ongi jantziak izan, psikoafektiboak dira.*

Beharbada hitz hauek irakurri ondoren apur bat gehiago jakingo dugu psikomotrizitatea zer den eta zer nolako garrantzia duen hezkuntzan.

Montse Arana

TXOKOA  
T  
B  
E  
R  
N  
A

Artadi  
Auzoa  
86 21 89

GANBARA

TABERNA  
Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

KABI  
TABERNA - ZUMAI  
Tfnoa: 143379



ANE AZKUE

Ez det espero itia, ez det bihar. Modulo bat egin nahi det. Orain nago noten zai, baina ez det bihar.



DAVID TEJERA

Egin nahi nuke, ahal baldin bada. Beharbada kentzea komeniko litzateke, jendea oso beldurtuta egoten da eta. Aprobaten badet ingeniariatza egin nahi nuke, edo bestela modulo bat.

# Beldurra al diozu selektibitateari?



MIKEL MARTIJA

Beldurra ez, baina gai asko sartzen dira eta bi aste hauetan "kaña" asko eman beharko zaio. Selektibitatea ez dago ondo, zuk gai horiek institutuan aprobaten badituzu, horrek esan nahi du menperatzen dituzula.



INIGO RODRIGUEZ

Ez, ez noa egitera. Atera ditudan 7 kateekin nola joango naiz ba?




JESUS MARI SANCHEZ

Pixkat bai, denbora gutxi daukagu eta gauza asko ikasteko. Nik kendu egingo nuke selektibitatea.



AINARA SANCHEZ

Ez det egin behar, hori arriskutsua da eta. Egin behar banu ez nioke beldurrik izango, eta ez zen txuletarik faltako. Hala ere, ondo dago selektibitatea egitea, aukeraketa egiteko.



UHIN LOIOLA

Beldurra ez, nazka ematen dit. Nahiko estudiante txarra naiz, eta neregatik izan balitz segituan kenduko nuke selektibitatea.



OLATZ MANZIDOR

Ez, baina selektibitatea gaizki dago. Jendeak gauza batzuk egin nahi ditu, eta selektibitatearekin notak asko jeisten dira.

ARRAIN ETA MARISKOAK

**7**

BARAZKIAK ETA AURREZ PRESTATUTAKO JAKIAK

**MARES**

7 MARES IZOZTUAK

**M**

**MENDI - ONDO**

ELEKTRIZITATEA

Axular 14  
20750 ZUMAILA

Telefonoak:  
860074 - 861569

- ALARMAK
- ANTENAK
- Banakoak
- Kolektiboak
- Satellite bidezkoak
- Ateazala automatikoak
- Eta abar.

# Hasi da udako futbito txapelketa

Hasia da dagoeneko urtero garai honetan egiten den txapelketa arrakastatsu hau. Aurten ere talde ugari eman dute izena, 28k hain zuzen ere, hauetatik 21 bertakoak eta beste 7ak kanpokoak, eta maiatzaren 31ean egindako bileran hauek guztiak 5 multzotan banatzea erabaki zen.

Horrela, lehen fase honetan 5 multzo izango dira, hiru 6 taldekoak eta beste bi 5ekoak. Talde hauetan lehen bi postuak eskuratzen dituztenek LIGA jokatu dute, eta gainontzekoek KOPA. Bigarren fasean, beraz, 10 talde onenak ligan lehiatuko dira, bi multzotan banatuta; eta gainontzeko 18 taldeek kopa izango dute jokoan, 6ko hiru multzotan.

## Multzoen banaketa

**A multzoan** honako taldeak egokitu dira: "Os Arrepentios" de Garibaldi, Cindyren fan beroak, Duran-Duran, Gubi (zarauztarrak), Kaka Mehe eta Pub Kezka.

**B multzokoak** dira Carpinteria Euskalduna (oriotarrak, iazko txapeldunak), Disco Bar Ilargi, Gaztedi Kirolak, P.M.G. Kopetilun, Scotland Free eta Tazos II.

**C multzoan** sartu dira Axier Kirolak, Bar Azkue Jatetxea, Gure Txokoa, K.D.T., Leize Taberna eta Urberu Sagardotegia.

**D taldekoak** ditugu Balezulo, Bulebukuxe, Ederki Herri Biltokia (Arroa Behea), Larrarte Kirolak (Aizarnazabal) eta Pub Txanela (Zarautz).

Azkenik, **E taldean** jarri dituzte Aterpe Taberna (azkoitiarrak), Everin (Azpeitia), Kabi Taberna, Urrezko Mutil Zaharrak eta Zalla Erretegia.

Txapelketa orain hasi eta uztaila bukaera bitartean izango da. Partiduak arratsaldero jokatu dira astegunetan, eta larunbat goizetan ere bai. Ea aurtengoan zumaiarrek lan txukunagoa egiten duten, iaz kanpotarren nagusitasuna ia erabatekoa izan zen eta. ■

## izerdi tantak Piraguista gaztetxoak primeran



Itxas-Gain elkarteko alebin eta infantil mailako piraguistek Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuten Bidasoa ibaian jokatuako frogan. Guztira 154 puntu lortu zituzten, bigarren geratu ziren Trxintxerpekoek 54 eta Donostiako Arraunek 39. Ikusten denez etorkizun handia dago Zumaian piraguismoari dagokionez.



la egunero izango dira partiduak polikiroldegian.

**AIZNAN-KOS S.L.**

SANEAMENDU ETA  
ERAIKUNTZA MATERIALA

Iraeta auzoa  
z/g  
Aptdo. 78

Tlf/Fax: 14 81 24  
20740 IRAETA -  
ZESTOA

**KALARI** TABERNA  
JATETXEA

- \* Eguneko menua
- \* Plater konbinatuak
- \* Kaxuelak - Otartekoak


Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAILA



# Pala txapelketaren azken txanpa

Hil honen zazpian jokatuko dira pala txapelketa interesgarri honetako 2. faseko azken partiduak. Fase honetan, normala denez, partiduak askoz orekatuagoak izan dira, antzeko maila zuten bikoteak baitzeuden lau taldeetan ere.

Bigarren fasean bi sari bereizi dira, lehenengoa, San Pedro saria, lehen fasean hobekien aritu ziren




Iaz baino giro hobea dago aurten.

bikoteentzat; eta bigarrena, San Pedrin deitutakoa, gainontzekoentzat.

**San Pedro sariko A** taldean Irureta-Carballo eta Gorostola-Aizpurua izan dira orain artean lan txuknena egin dutenak. **B** taldean, berriz, hiru bikote berdinduta geratu dira: Unanue-Arratibel, Unanue-Unanue eta Uranga anaiak, eta tantu diferentziaren arabera erabaki da sailkapena.

**San Pedrin** sarian kontuak argiago daude. **A** taldean Grela-Buenetxea bikotea da nagusi, jokatuako partidu guztiak irabazi baititu orain artean. Gauza bera gertatu da **B** taldean, Elustondo II eta Odonek lehen postua erraz eskuratu baitute.

Orain, azken fasean, saria batean zein bestean, lehen lau bikoteek egingo dute aurrera, eta bi taldeak gurutzatuko dira; hau da, bateko lehen sailkatuak besteko laugarrenaren aurka jokatu du, bigarrenak hirugarrenaren aurka, eta



Partidu oso parekatuak egon dira.

abar. Partidua galtzen duena kalera joango da, eta bestea final-erdietarako sailkatuko da

## FINAL-LAURDENAK

Ekainaren 14 eta 26an,  
betiko orduetan.

FINAL-ERDIAK  
Ekainaren 21ean,  
gaueko 10:15etan.

FINALAK  
Ekainaren 28an,  
gaueko 10:15etan

## AZKUE

### Taberna-Jatetxea

- Jantokia zabalik
- Oheak
- Eguneko menua eta Karta
- Bataioak eta Jaunartzeak

Basadi 9

Tel.: 861780

## TIPP ALEMANIERA

Maila guztiak 6/8 orduko  
ikastaro trinkoak

Uda bat = EOI maila bat baino gehiago  
Informa zaitetz!!

Zigordia kalea 11 Tel.: 835609

## ILE APAINDEGIA

**Merca**  
**Uranga**

Etkezaretza, 19  
Telefonoa: 862342

20750 ZUMAIA

**ENCE**

**JOXE  
MANUEL**


Orain astelehenetik  
ostegunera  
**KUPOI** 150 pza  
**BERRIAK!!**



**JUSTA  
TABERNA**  
**EGUNEROKO  
BAZKARIAK**

Erribera kalea 20

# 15ean izango da Zumaia-Azkoitia triatloia



**L**ehengo urtean irailean jokatu zen lehen triatloia bigarren edizioa hil honen 15ean jokatu da, arratsaldeko 5etan hasita. Iazko ibilbidearen oso antzekoa izango da eta horrela igerian **1.500 metro** egin beharko dituzte, bizikletan **38 km** eta korrika beste **10 km**.

Aurtengo igeriketa froga arranpla bertatik hasiko da eta bertan bukatuko da, paolaldean buelta eman ondoren. Julio Beobide ibiltokitik dena ikusteko aukera egongo denez, froga ikusgarriagoa izango da.

Arranplan irten, lehortu eta bizikleta hartuta Zarautz aldera abiatuko dira, Mia igo, Zestoan buelta bat eman eta zerbait jan ondoren Azkoitira joateko. Han korrika bi itzuli emango dizkiote 5 km-ko zirkuito bati.

Izena polikiroldegian eman beharko da, 2.000 pta ordaindu beharko dituzte federatuek eta 3.500 besteek (asegurua barne). Epea hilaren 8an amaituko da, eguerdiko 2etan.

Sariak, bai gizonezko bai emakumezkoetan, honako hauek izango dira: **40.000** pta irabazlearentzat, **30.000** jasoko ditu bigarrenak, **20.000** hirugarrenak, **10.000** laugarrenak eta **5.000** bosgarrenak.

Lasterketaren ondoren nahi duten partehartzaile guztiak afari batean elkartuko dira. Bertan materiala zozketatuko da eta musika ere izango dute. Ea bigarren edizio honetan eguraldia iaz bezala portatzen den, eta animo parte hartu behar duten zumaiaarrei!! ■


## izerdi tantak

### Alberdi eta Enbil txapeldun

Aurten ere zesta-puntako Espainiako txapelketa lortu du bikote zumaiaarrak, Madrilen jokatuako finalean. Final-erdietan nafarrak kanporatu zituzten 35-29 emaitzarekin eta finalean arabarrak errazago hartu zituzten mendean, 35-22 hain zuzen ere. Noiz emango ote dute profesionaletarako urratsa?

### Pirineo aldera irteera

Inda-Mendi elkarteak asteburu osorako irteera antolatu du ekainaren 28-30 astebururako. Foto Mertxen emango dizute honen berri.



lazko froga ikusgarria izan zen.



## II. Baleike KOMIKI LEHIAKETA

Iaz hasitako bidea jarraituz, aurten ere komiki lehiaketa bat antolatu dugu, aldizkariaren urteurrena ospatzeko. Herriko eta kanpoko komikigile guztiak gonbidatu nahi ditugu, gure lehiaketatxo honetan parte har dezaten. Oinarriak iazkoaren oso antzekoak dira.

Lehiaketan 14 urtetik gorakoek har dezakete parte, eta komikiko pertsonaiak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Komikiak zuri-beltzean eginak izango dira, edozein teknika erabiliz. 18x25 neurrikoak izango dira orrialdeak, gutxienez bi eta gehienez lau.

Saritutako komikiak aldizkarian bertan argita-ratuko dira.

Komikian hizkuntzaren bat azaltzekotan euskara izango da. Lanak bi sobretan aurkeztu dira; handiengan komikia sartuko da eta kanpoaldean **“Zumaiako II, Baleike Komiki Lehiaketa”** eta lanaren izenburua jarriko dira. Txikiaren kanpoaldean izenburua jarri eta barruan lehiakidearen datuak adierazi beharko dira.

Lanak bertara eramanez edota postaz aurkeztu ahal izango dira, Foronda kultur etxean. Epea **uztailaren 30ean** itxiko da.



Hiru mozolo hauek irabazi zuten iazko lehiaketa

Epaimahaia gai honetan adituak diren pertsonak osatuko dute, eta beren erabakia abuztuaren hasieran jakinaraziko dute. Honako sai hauek emango dira:

1. saria:  
25.000 pta
2. saria  
15.000 pta

**Zumaiar onenari:**  
15.000 pta

Oporrak hartzen dituzuela aprobetxatuz, anima zaitezte komikitxo bat egin eta lehiaketara aurkeztera. Eta ondo marrazten duen lagunen bat ere ezagutzen baldin baduzue, eman iezaiozue lehiaketa honen berri. Zuen lanen zain izango gaituzue.



**ENARA, S.L.**  
INPRIMATEGIA

Amaia Plaza 15  
Tlf: 862458

*Larrañaga*  
*Juanjo*  
MARATINA

BESADI - BUSTATEGUIA, 4.ª  
ZUMAIAR  
TEL. 862001

**HARTATEGIA**  
**URDATEGIA**

**ENTER**  
INFORMATICA

Baltasar Etxabe kalea z/g  
Tlf: 861175 - Faxes: 860550

**Larrai**  
Informática

Basadi Auzategia, 10-A atzean    Telefonoa: 862228    ZUMAIA

**xirula**

ARGAZKI ETA BIDEO  
ERREPORTAIK  
ERREBELATZEAK  
KAMARAK  
MUSIKA

TELEBISTA  
BIDEO  
HI-FI

Erribera kalea, z/g    20750 ZUMAIA  
Tel. 861705

San Pedroak

96

Egitaraua oraindik erabat zehazteko badago ere, ekitaldi nagusiak zein izango diren aurreratuko dizuegu. Aurten aipagarria da helduek San Pedro egunean egingo duten **TANBORRADA BEREZIA**

- Ekainak 28 Ostirala
- Arratsaldeko 5etan: Buru-haundiak dultzaineroekin.
  - 7etan Bandaren kalejira.
  - Gaueko 11'30etan dantzaldia Almen taldearekin.

- Ekainak 29 San Pedro Eguna
- 10'30etan Meza Nagusia
  - 5etan Eskuzko pelota partidu profesionala
  - Gaueko 11'30etan SUAK
  - 12etan tanborrada
  - Ondoren dantzaldia



- Ekainak 30 Igandea
- 11etan Iturengo zanpanzarrak
  - 12'30etan Trikitixa kalejira
  - 6etan Herri Kirolak
  - 7etan Samasiku fanfarrea
  - 10,30etan Basajaun taldearekin dantzaldia



- Uztailak 1 Astelehena
- Egun osoan Parke Berezia

- Uztailak 6 Larunbata
- 11etan KAME eskusoinu orkestaren saioa, plazan

- Uztailak 7 Igandea
- Egun osoan Dantzari Eguna
  - 5etan alardea
  - 7'30etan Urgabe trikitixa




San Romualdo jaiak

EKAINAK 14 OSTIRALA

96

- 20:00 Txupinazoa eta Jaien hasiera kalejira alaiarekin.
- 23:00 Rock kontzertua, honako talde hauekin:



eta Musika eskolako beste talde batzuk.



EKAINAK 15 LARUNBATA

- 11:00 Haurrentzako jolasak.
- 16:00 Mus txapelketa txosna inguruan.
- 19:00 Sardin-jana bikaina.
- 23:00 *Talisman* orkestak eskeinitako dantzaldi ederra. Atsedendaldietan Karaoke saioak egongo dira.

EKAINAK 16 IGANDEA

- 12:30 Euskal dantzen erakustaldia.
- 18:00 Iruñeako joteroen ekitaldia.
- 20:00 Otarraren zozketa eta jaien amaiera.



**BASUSTA**  
ERRETEGIA

Pantxita Etkezarreta, 25  
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala

**ZUMAIA AUTOAK**

Juan Belmonte, 45  
ZUMAIA

Telefonoa: 861485  
Fax: 143143

**Galdona**



Mendaro mariñela, 1  
Juan Belmonte, 15  
Tf: 86 11 17 / 14 33 46  
Fax: 861330

20750  
ZUMAIA  
(Gipuzkoa)



Antzerkia



**PEINETA  
TEATRO**  
taldearen eskutik  
(gaztelaniaz).

Ekainak **14**

gaueko 10,30etan  
Aita Marin  
Sarrera:  
500 pezeta

**UDAKO TXARTEL  
LEHIAKETA**

- Teknika librea
- Neurria: DIN-A3
- Epea: uztailak 10
- Saria: 60.000 pta
- Gaia: "Udako Festak 96"

Kartela Udako festen  
egitarauaren azala izango da.

Musika

**Ganbara Musika  
kontzertua**

Ekainak 21, gaueko 10etan  
Maria eta Jose Ikastetxean  
Euskal Herriko  
kontserbatorio  
ezberdinetako ikasleen  
emanaldia. Hauen artean  
izango dira Amaia Aldalur,  
Joxe Mari Azkue eta Marixi  
Sesma zumaiarrak.

**San Juan bezpera**

Ekainak **23**

- Egun osoan  
**ARTISAU AZOKA**

- 8etan Goiko  
Plazan **DEBAND**  
taldearen  
kontzertua.

- 10etan **SAN  
JUAN SUAK** udal  
txistularien eta  
Beti Gazte  
taldearen  
laguntzarekin.

**VII. ARGAZKI  
LEHIAKETA**



Zumaiako Argazki Elkarteak  
antolatzen du, udalaren  
babesarekin. Argazkiak paperean  
aurkeztu behar dira, zuribeltzean,  
gai librean, eta gehienez ere hiru  
aurkeztu ditzake egile berak.  
Gutxieneko neurri 18x24 cm-koa  
da, baina denak ere 44x50  
kartulina mehe batean jarrita  
egongo dira. Lanak Forondan  
aurkeztu behar dira, ekainaren 21  
baino lehen

**SARIAK:**

1.a: 45.000 pta


2.a: 35.000 pta

3.a: 25.000 pta

Bertako onenari: 15.000 pta

Erakusketak

**ESKULTURA**  
lehiaketako maketarik  
onenekin erakusketa  
Oxford aretoan,  
ekainaren 22tik  
uztailaren 7ra bitartean



**ARGAZKI** lehiaketako  
lan onenekin erakusketa,  
ekainaren 27tik  
uztailaren 14ra,  
Forondan.

**ZALLA**

Taberna - Erretegia  
**PLATER KONBINATUAK**  
**OTARTEKOAK**

**OILASKO ERREAK**

San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

**ITSASKI**  
supermerkatua



Urumea kalea z/g  
Zumaia

**EGUZKI  
PUB**



**HOKTEL  
BEREZIAK**

Basadi Auzategia  
9-A 2-B  
ZUMAIA



**12 Monos**  
(1995)

**ZUZ.:** Terry Gilliam  
**AKT.:** Bruce Willis,  
Madeleine Stowe,  
Brad Pitt

2035 urtean gaude, eta gizadiaren % 99a hila dago. Filadelfia hiri txikituaren azpian bizi diren zientzilari batzuek etorkizuna eraikitzeko modurik onena iraganean begiratzea dela pentsatzen dute. Horretarako 1996 urtera bidaltzen dute Bruce Willis. Hau laborategi bateko animala bat bezala erabiltzen duten preso bat dugu. Bertan zientzilari baten seme zoroa den Brad Pitt eta Madeleine Stowe doktorea ezagutuko ditu.


Terry Gilliam Monty Python umore talde ingeleseko partaide izan zen, eta bertan hasi zen zuzendari lanak egiten. Batzuen ustez zuzendari hau "genio" bat da, eta beste batzuentzat berriz zuzendari arrunt bat. Pelikula hau ere batzuen iritziz maisulana den arren, filme aspergarri bat besterik ez da beste batzuentzat. Zinera aurreritirik gabe hurreratzea izango da onena.

Zine kritikak	EGIN	DV	Egunkaria
<b>Pena de muerte</b> Zuz: Tim Robbins	★★ ★★	★★ ★★	★★ ★★
<b>12 Monos</b> Zuz: Terry Gilliam	★★	★★ 1/2	★★ ★★
<b>Libertarias</b> Zuz: Vicente Aranda	★★	★★★ 1/2	—



**IRAKURKETARAKO AUKERAK**

Hemen dezue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat. Dasta eta gozatu azazu ahal dezun neurrian



**Euskaraz**

- Beluna Jazz *Harkaitz Cano*
- Bizi nizano mundua *Itxaro Borda*
- Betiko loa *Raymond Chandler*
- Zorotariko euskal hiztegia *Joxean Sagastizabal*
- Tortilla flat *John Steinbeck*
- Gattopardo *G.T. di Lampedusa*

**Gaztelera**

- Esos cielos *Bernardo Atxaga*
- Loca Magnolia (1928) *Emma Cohen*
- La regla de tres *Antonio Gala*
- Noticia de un secuestro *Gabriel G. Márquez*
- El niño republicano *Eduardo Haro*
- Los guardianes del apocalipsis *Robert Ludlum*
- Recuerdos de otra persona *Soledad Puértolas*

**Gaztetxoentzat**

- Urrutiko intxaurrak *Manuel L. Alonso*
- Gaez ate joka datozenean *Xabier P. Docampo*
- Esan Super eta kito *Reinhold Ziegler*
- Arkimederen hareneko te hura *Mehdi Charef*

**Haurrentzat**

- Pippi kaltzaluz *Astrid Lindgren*
- Enekoren soineko arrosa *Anne Fine*
- Txerrama errudun *Iñaki Zubeldia*

KOSTA GAS

GAS ETA  
KALEFAZIO  
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert

ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua  
expert eta  
Repsol-Butanoren  
Banatzaile Ofiziala

GURE TXOKOA  
TABERNA

Kaxuelita eta pintxo  
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

ENTZUN!

Musika eta euskara maite degun guztiok zorte onean gaude, hil honen seian aurkezten baita ENTZUN, euskara hutsean datorren musika aldizkaria. ENTZUN indar askorekin dator, eta bere lehen aleak argi uzten duen bezala, bera lantzen dun lantaldea oso irekia da eta honen mugak musikarenak bezain irekiak daude.

**Irrati eta prentsako lagunak, musika taldeetako kideak eta musika maite dutenak elkartu dira proiektu honetan**

Aldizkari honen sustraiak *Bertso Hop Infotik* datoz, baina gaur egun independentea da. Hura desagertzean horrelako zerbait egin beharra zegoela pentsatuz hasi ziren lanean, kolaboratzaileak topatzen, laguntza eskatzen eta abar.

*Entzun, entzun eta irakurri. Euskara eta musika, euskal musika eta atzerriko taldeak, atzerriko taldeak euskaraz eta musika gehienak euskaraz baturik, entzun musika eta irakurri ENTZUN!*

Azkenean lantalde handi bat sortu da. Irrati eta prentsako lagunak, musika taldeetako kideak eta musika maite dutenak elkartzen dira proiektu amankomun honetan..


ENTZUN! aldizkariaren lehen zenbakia 44 orrialdek osatuko dute. Bertan, euskal taldeei dagokionez, KASHBAD edo eta ILUNA BELTZ taldeak ezagutzera emango dituzte; bestalde, ezagunagoak direnen artean, SU TA GAREkoei eginiko elkarrizketa bat dator, baita ere, JUAN CARLOS PEREZ, edo eta NEGU GORRIAK taldearen Mexikoko giraren argazkiak, Fermin Muguruzaren komentario labur batzuekin.

Kanpora begira eta beste askoren artean, BODY COUNTekoek beraien eguneroko bizimodua kontatzen digute,

eta SOUNDGARDEN taldeari buruz baita ere erreportaia luze bat dator.

**ENTZUN!en mugak musikarenak bezain irekiak daude**

ENTZUN! gainera koloretan dator eta bi hilebetetik behin izango degu kalean nahiz eta bigarren zenbakia urrian azalduko den. ENTZUN!en prezioa 300 peztakoa eta urteko harpidetza egiteko 1.200 pezeta ordaindu beharko dira (5 zenbaki). ENTZUN!en aurkezpena ekainaren seian izan da, Irunen BERTSO HOP diska dendan, baina lasai, Zumaian ere arazorik gabe aurkituko dezu eta. Euskaraz irakurri, euskaraz ikasi.



**IHINTZA**  
taberna

Tlf: 860472  
Oteaga y Gasset, 3

**TXALAPARTA**  
OPARIK

Angeles Sorazu, 2 Telf. 14 30 89  
20750 ZUMAIA Fax. 43 06 37  
(Gipuzkoa)

**JE MAR**

**LOREDE NDA**

LANDAREAK  
LOREAK  
HAZIAK  
ZERAMIKAK

Erribera 1 Telefonoa: 860375  
20750 ZUMAIA

**OIKIARRAREN  
INDARRA**

Duela berrogeita hamar urte baino gehiagokoa da kontu hau. Ba omen zen Aizarnazabal alde horretan apustu eta jokorako grina bizia zuen okina, *Gorribeltza* deitzen ziotena. Oikiar bat inguratu zitzaionean berehala zirikatu nahi izan zuen. Txikia eta nahiko kaxkarra zela ikusita, honako desafioa luzatu zion:

**--Larogei kiloko baba-zakua Aizarnazabalgo plazan bizkarrean hartu eta lurrera batere jeitsi gabe hire baserriko mandiora eramaten badek, erregalo emango diat.**

Joxe Oliden "Kollo" zen oikiarra, Soutz-Behe baserrikoa. Onartu zuen aizarnazabaldarrak bota zion enbidia, eta apustu honen inguruan ikusmin izugarria sortu zen: ez zuela bide erdirik egingo, igual egingo zuela... Joxek berak ez, baina inguruko jendeak diru pixka bat jokatu zuen. Iritsi zen eguna, bizkarreratu zuen zaku haundia herriko plazan eta ttipi-ttapa, ttipi-ttapa han joan zen Oikia aldera. Zubialde, Etxabe auzoa... denak atzean laga zituen Joxek, eta bi geldialditxo bakarrik egin zituen bidean, aulki batean eseri eta arnasberritzeko. Azkenean zubia pasa ondoren trenen geltoki ondoan dagoen baserrira iritsi zen. Hango azken eskailera mailak saltotxo batzuekin igo eta mandiora ailegatu arte ez omen zuen lurrean laga Joxe *Kollok*. Ederki damutu zen okina, txikia eta kaxkarra izanagatik ere, ez baitzuen oikiarraren indarra neurtzen asmatu.

**Kontu-kontari**

*Motxian  
hi!*



**Nor: Rakel Etxabe  
Nongoa: Errotakoa**

- OGIA, NORMALA EDO INTEGRALA?  
NORMALA.
- ZER EGITEN DA SALTZEN EZ DEN OGIAREKIN?  
BASERRIETARA BANATZEN DA, GANADUAREN-TZAKO, OGI ARRALLATUA ERE EGITEN DA.
- OGIA SALTSETAN BUSTITZEN AL DEZU?  
ASKO, HORIXE GUSTATZEN ZAIT GEHIENA.
- NORI DEITUKO ZENIOKE "BOLLITO"?  
TOM CRUISE-I.
- NAPOLITANAZALE ASKO AL DAGO HEMEN?  
BAI, DEXENTE, GAUPASA EGINDAKOAK BATEZ ERE.
- IGANDE GOIZAK GOGORRAK IZATEN AL DIRA ORDUAN?  
BAI, AZKEN BOLADA HONETAN JENDE ASKO DABIL.
- TARTARIK GUSTOKOENA?  
HOJALDREZKOA.
- ZURE BIZITZAKO MOMENTURIK GOXOENA?  
ASKO IZANDITUT, HORIEN ARTEAN EZKONTZA.
- EZAGUTU DEZUN PASTELZALERIK AMORRATUENA?  
OSABA BAT, DENETIK ETA EDOZEIN ORDUTAN JATEN DITU.
- ZUMAIAKO HAURRAK FLAUTAJOLE ONAK AL DIRA?  
BAI, ETA ORAIN TXOKOLATEZKOA DAUKATE AUKERAN.
- BOTA DIZUTEN PIROPORIK POLITENA?  
EZ NAIZ AKORDATZEN, ASPALDIAN EZ DIDATE BOTA.



**CARLIN  
OFIMARKET**

FOTOKOPIAK ETA ENKOADERNAZIOAK.  
PAPERA ETA BULEGORAKO MATERIALA  
ORDENAGAILU ETA INPRESOREN  
OSAGARRIAK  
Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453



**ALBAITARITZA  
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IRAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
-ALBAITARIAK -  
LARRIALDIAK  
Basadi, 7 behea  
20750 ZUMAIA  
Tel. 143310  
-24 orduetan  
-Zeure etxean  
-Telef. 900-282828  
Abonatu zbkia: 247790

**BIZKOR  
FOTOKOPIAK**



-Enkuadernaketak  
-Plastifikatzeak  
-Fax publikoa  
-Bulegoko materiala  
Basadi 14, behea - Tlf: 145120

**OHARRAK**

Gauez pertsona bat zainduko nuke. Amaia. Tel: 742517.

**AGURRAK**

Gora Pletorexia!!!!

Mof!!!! Keskandalo!! Hola irabaziko dek pala txapelketa! Pala motzekoa bai!!

Gure Santak ipurdi polita dakala? Barrabilak!

Garibaldi: damutu puta batzuk zeate! Arbitroa bai tipo jatorra...

Maiatzan lehena: esamiñetan? Ze putada! Ni oporretan nago (kasi). Zuek aprobatu eh? Ta parrandatuak in, guek ere eingo ditugu ta. Hil ta pakia!

Estazixuan Baleike karaokean nagusi! Besos, ternura... Emoistazu Muxutxue... Hau dek pletorexia hau!!

**SALEROSKETAK**

MotoGAC berria salgai, 49 c.c.koa. Modu onean. Tel.: 860642.

**Salmenta puntuak**

- JESUSKOA
- ERROTA (ERRIBERA)
- ERROTA (BASADI)
- ERROTA (J.BELMONTE)
- OGI BERRI (AMAIA)
- OGI BERRI (BASADI)
- ARKUPE OKINDEGIA
- AIZPURUA LIBURUDENDA
- OLANO LIBURUDENDA
- LOITZ LIBURUDENDA
- ALAI JANARIDENDA
- NIKOL KAFETEGIA
- INPERNUPE
- ZALLA ERRETEGIA
- FOTO GAR
- ARROA BEHEA
- SAN TELMO JANARIDENDA

**Egunkaria**

**JAIA**

SEBASTOPELEKO TITIRTEROAK  
PIRATAK  
TXARANCAK  
TRIKITILARIAK  
DULTZAINEROAK  
ANTZERKIA  
ZANDAN ZAHARRAK  
GOZATEGI  
TRIKITIXA KONTRAIRO  
BERTSOLARIAK  
JOXE RIPAUI

OS DIPLOMATICOS  
EXKIXU  
KAXIANO-MARKOS LANDA  
MIKEL MARKEZ  
TRIKI TA KE  
MAIXA TA ITZIAR  
BITTOR AIAPE  
EGAN...

**EUSKAL PRENTSAREN EGUNA**

Ekainak 9 Sagues Donostia

**L**ehiaketa Goxoa



Askok asmatu dezuen bezela aurreko hilabetean agertzen ziren nexka polit haiek **Libe Aizpuru** eta **Itxaso Urkidi** ziren, eta lehenengoaren gelakidea den **MAIALEN AIZPURUA BAKEDANO** izan da **TXAPARTEGI GOZOTEGIAK** eskeinitako Crocanti tarta ederra irabazi duena. Zorionak eta on egin!

2. URTEURRENA  
25 zenbakia

txalaparta,  
perkusioa,  
laburnetraia

zozketak,  
sorpesak ...

# Baleike TXOU!

bertsoak, antzerkia,  
dantzariak ...

musika, txiste  
kontalariak ...

Ekainak 27 osteguna

Gaueko 10etan Aita-Mari aretoan